

EUSKAL PRESO POLITIKOAK

Esperantzarako tartea, oraindik euskal jendartearen nahia asetzen ez duena

Pandemiaren urtea izan da: konfinamendua, mugikortasun mugatua, harreman muga-
tuak... Horiek guztiak erabat mugatuta zeuzkaten euskal preso politikoei lehendik ere eta, zaila bada ere, are mugatuago dauzkate orain. Inkomunikazioa, areagotua. Euren eta euren senideek.
Etxeko konfinamendua lehenbizi, deskonfinamendua gero, itxitura perimetralak geroa-

 **EUSKAL PRESO POLITIKOAK** / GAUR8

Urte gazi-gozoa izan da euskal preso politikoen egoerari dagokionez. Gozo baino gaziagoa, haien Euskal Herriratzeko eta eskubideak aitortze bidean izandako mugimendu uzkurak baino nabarmenagoa delako gaixorik dauden hainbat lagunek morroilope jarraitzea, besteak beste, bai eta espetxe politika aldatzeko egindako pausoen moteltasuna ere. Bestetik, covid-19ak eragindako egoerak haien inkomunikazioa nabarmen areagotu du.

go... Inguruabar horiek eta osasun larrialdia dela-eta espetxetan hartutako neurriek, batez ere kanpokoekin harremana eteteak, egoera are larriago batera eraman ditu presoak eta haien senideak.

Positiboak direla-eta, egun batetik bestera espetxeak ixten dituzte. Presoen bisitariak, bi-deari lotzen zaizkionean, ez dakite bisita egin ahal izango duten, azken orduko abisu batek buelta ematera behartuko dituen edo kartzelara iritsi ondoren esango ote dieten. Honela

SAKABANAKETAREN ZENBAKIAK

Sakabanatzea 218 EPPKko preso 32 emakume eta 186 gizonezko	Kartzelaldiak 20 urte edo gehiago eman dituzte espetxean 45ek	Adina 65 urte edo gehiago dituzte 16k (haietatik hiruk, 70tik gora urte)
15 Euskal Herrian haietatik 7, etxean preso	Lekualdatzeak-hurbiltzeak 89 Lekualdaketa 2018ko irailetik, Estatu espainolean, eta beste 22 hurbilduko dituztela iragarri	Egoera juridikoa Estatu espainolean 119 1. graduan
188 Estatu espainolean	21 Euskal Herrira beste 4 ekarriko omen dituzte	59 2. graduan 2, presoaldi arinduan
30 Estatu frantsesean haietatik 1, etxean preso	5 aske Euskal Herrira ekarri dituzte- netatik 5 aske daude	10 3. graduan 6, presoaldi arinduan
Osasun egoera 17 Larri gaixorik haietatik 4k ez dute jendar- tean jakitera eman beren gaixotasunaren berri		





azaldu du Etxerat Elkartek: «Ziurgabetasun handiagoa, urduritasun handiagoa. Aurrez aurreko komunikazioak bertan behera geratu dira ia; bisitak, egin daitezkeenean, mintzategietan dira: kristala eta telefonoa, edukieraren erdia eta familia unitate bakarrarekin».

Hamar hilabete joan dira dagoeneko eta, senide eta lagunen elkarteak dioenez, ez dago kondizio horiek laster aldatuko diren aurreikuspenik. «Kontak-tu fisikorik ezak, elkar ikusteko, komunikatzeko eta elkarren be-

rri jakiteko mugak, beldurra, urduritasuna, ziurgabetasuna... ehunka familia sufriarazten ari dira».

ESPERANTZARAKO TARTETXO BAT

Aurtengo urteak, hala ere, esperantzarako tartetxo bat zabaldu die presoiei eta haien senide eta gertukoei. 2018ko irailetik izan diren hurbilketarik gehienak aurtun gertatu dira. Horrek zabaldu du esperantzarako tarte hori, oraindik nahikoa ez dena, Etxeratek dioenez: «Arindu da pixka bat Espainiako espetxe po-

Presoen bisitariek, bideari lotzen zaizkionean, ez dakite bisita egin ahal izango duten, abisu batek buelta ematera behartuko dituen edo kartzelara iritsi ondoren esango dieten

«Egindako mugimenduek ez diote erantzuten euskal gizartearen eskariari», dio Etxeratek, eta euskal alderdi eta sindikatu gehienek hilaren 11n egindako adierazpena gogorarazi du

litikak euskal presoen eta senideen gainean egiten duen presioa, baina ez da nahikoa».

Bestetik, errepresiorako joerak bere horretan dirau, batez ere arlo judizialean, Bateragune auziko bostak berriro epaitzeko erabakiak edo Jaione Jauregiren aurkako jazarpenak erakutsi dutenez.

Senideek eta gertukoek urruntzearen ondorioak jasaten jarraitzen dute. Adineko senideek ezin dute bidaiatu, hainbat ume bidaia ikaragarriak egitera behartuta daude, bidaien kostu ekonomikoa itzela

da... Horri guztiari, esan bezala, covid-19aren eragina gehitu zaio.

«Egindako mugimenduek ez diote erantzuten euskal gizartearen eskariari», dio Etxeratek. Izan ere, urtean zehar izaten diren askotariko mobilizazio ugarienez gain, euskal alderdi eta sindikatu gehienek joan den abenduaren 11n jendaurrean egindako adierazpena euskal jendartearen nahiaren isla argia da: presoak lehenbailehen Euskal Herriko espetxetara ekarri behar dituzte, eta Gobernu espainolari babesa eskaini zioten espetxe politika normalizatuaren bidean. «Euskal gizarteak presoak Euskal Herriratzeara nahi du, Zaballa, Martutene, Basauri eta Iruñera», dio Etxeratek, «eta 65 urtetik gorako presoak eta larriki gaixorik dauden 18ak aske uztea, are gehiago pandemia garaian».

Estatu frantsesean 2018. eta 2019. urteetan izan ziren hurbilketa gehienak. Aurtun, berriaz, Frederik Xistor Haranbururen baldintzapeko askatasunak «itxaropen leiho bat zabaldu du biziarteko zigorra betetzen ari diren beste lagunak askatzeko bidean», euskal presoen senide eta lagunen elkartearen aburuz.

Bestetik, «lobby immobilistak» urruntzearen amaiera eta presoen bide juridikoa blokea ez ditzan, euskal gizartera ez ezik, Nafarroako eta EAeko erakundeetara eta Gobernu espainolera jo du Etxeratek, haiek esku hartu eta euskal presoek eskubidez eta legez dagokien ibilbidea egin ahal izateko.

«Momentua da denok batera aurrera egiteko», bukatu du elkarteak, eta adierazi du Sarek eta Bakearen Artisauek urtea bukatu arte eta urtarilaren 9rako deitutako mobilizazioekin bat egiten duela.



Etxerat elkarteak udan aurkeztu zuen kanpaina: «Gasolinarako dirua behar dugu». Beheko irudian, Xistor Haranburu, 30 urte pasako giltzapealdia atzean utzi zuen egunean. Juan Carlos RUIZ | FOKU - MEDIABASK

